

Leitzako Udalak 321 etxebizitza eraikitzekeo plana onartuko du etzi

PROIEKTUA ▶ «3 alderdi politikoen adostasuna dago», dio alkateak; osoko bilkuran onartuko dute

«**KEZKAK**» ▶ Herritarrek euren «desadostasuna eta zalantzak» azaldu zizkieten Saenz alkateari ▶ 7

ALBIZTUR ▶

Nolega programaren bidez, euskara landuz

Ahozotasuna lantzeko lau eskola txiki elkartu dira ▶ 5



Asegarce enpresako pilotariak Asuncion Klinikari tratatzen dituzte

TOLOSA ▶ Asuncion klinikako zuzendariak eta Asegarce enpresakoek lankidetzara hitzarmena sinatu dute. Ondorioz, pasa den urtetik, Asegarceko pilotariak Tolosako erietxera joaten dira proba klinikoak, analitikoak eta abarrek egitera. E. EZEIZA ▶ 4

BEDAIO ▶

Bihar Harri Jaia ospatuko dute ▶ 5

XABI ALONSO ▶ LIVERPOOLEKO JOKALARIA

«Ingalaterran gehiago gozaten dut futboleko jokatzeko»

Gaur jokatuko du Txapeldunen Ligako finala tolosarrak, Milanen aurka ▶ 6



JON ORDOÑEZ





Udalik gabeko herria

Hernialdek legealdia osoko bilkurarik gabe eta hiru urte alkaterik gabe egin ditu

IMANOL GARCIA

Legealdi honetan egoera bitxia izan du Hernialdek. 2003ko hauteskundeetan Herritarrei Zabalduz kandidatura ilegalizatu zuten. EA-EAJk lortu zituen zazpi zinegotziak baina ez zuten kargua hartu. Horrela aurreko legealdian alkate eta zinegotziak izandakoak jardunean aritu behar zuten. Baina alkate zen Joxe Mari Iraolak eta bere kandidatura independenteko zinegotzietatik dimisioa eskatu zuten. 2004ko irailean gauzatu zen dimisioa, baina legealdi guztian ez da osoko bilkurarik egin. Iraolak azaldu zuenez, «egoera oso arraroa zen. Udal hauteskundeetan ez ginen aurkeztu. Aurkeztu zen kandidatura ilegalizatu egin zuten eta EA-EAJk dimisioa aurkeztu zuen. Beraz urte eta erdi jardunean jarraitu dugu, egoera aldatuko zen itxaropenean. Aldaketarik ez dagoenez, dimittitza erabaki dugu».

Guzti honek Hernialde udalbatzarik gabe uzten zuen. Mikel Arrizabalaga udalerriko idazkariak —egun baimen bat du euskara ikasten aritzeko— azaltzen duenez, egoera hori ez dago aurreikusita. «Gestora bat jartzeko bi kasu bakarrik daude. Inor ez bada aurkeztu udal hauteskundeetara, sei hilabetera beste hauteskunde batzuk antolatzen dira eta hor ere ez bada inor azaltzen, orduan gestora bat jartzen da. Bestea Marbellan (Espainia) gertatu dena da. Udala disolbitu egin zuten eta gero gestora bat izendatu».

Udalaren dimisioaren ostean, idazkariak eta administrariak hartu zuten ardura. «Mantenua bakarrik egin ahal izan da», azaldu du Eburne Tolosa administrariak. «Erabakirik ezin denez hartu, gestioak



Udaletxearen mahaiko eserlekuak hutsik egon dira legealdian. I. GARCIA

mantendu bakarrik egin daitezkeen», gaineratu du. Egin ahal izan duten gestioak soldadak eta gizarte segurantzaren ordaintzea, Ogasunari eta Iberdrolari ordaintzeko egitea izan da, adibidez.

Ekintza plana geldituta

Egoera honek sortu duen eragin handienetakoa inbertsioan izan da. Udalean erabakirik ezin izan denez hartu, proiekturik ezin izan da gauzatu. Konponketa txikiak —eta egin ahal izan dituzte, farola bat konponetzea eta errepide baten zuloak konpontzea, uraren hodian

konponketak... «Gauza handirik ez», dio Arrizabalagak. «Dena geldirik egon da. Ez da udal bizitarik izan», gaineratu du idazkariak.

Aurrera eramanez den egitasmoetako bat arau subsidiarioak aldatzea izan da. Bestalde, Agenda 21a martxan jarri bazen ere, herri batzar batean eztabaidatutako ekintza plana ezin izan da onartu, horretarako osoko bilkuraren oniritzia behar delako. Azken bi urtetan liburategia itxita egon da. Egoera honen beste ondorioetako bat izan da. Liburuzainari kontratu egiten zaio ikastaro batzuen hasieran, baina ho-

MANTENU LANA

Erabakirik hartu ezin denez, egin beharreko gestioak bakarrik gauzatu ahal izan dute Udaleko teknikariek

retarako alkatearen sinadura behar da. Dimititu aurretik kontratua egin zitzaion liburuzainari eta horrela 2004-2005 ikasturtean liburategia irekita egon zen. Ordunik zerbitzu hori ezin izan da eman.

Herritarren gastuei dagokionez ere eragina izan du. Ohiko zergak, hau da, zaborrarena, urarena edo zirkulazioarena, ez dira aldatu. Beraz, lau urte hauetan berdina ordaintzen jarraitu dute Hernialdekoek, zergak aldatzeko alkatearen sinadura behar delako. Bestalde, Hernialdek ezin izan du parte hartu Mankomunitatearen bilanetan, ordezkariak ez zuelako.

Bi zerrenda iganderako

Udalik ez izateak ere elkarrizketa bitxirik sortu du, Eburne Tolosak azaltzen duenez. «Eusko Jaurlaritzatik edo Foru Aldunditik deitu izan dute alkatearengatik galdetuz. Ez dagoela erantzutean, bueltan galdetu izan didate ea noiz itzuliko den edo zer ordutegi duen. Oraindik esplikazioak eman behar izaten ditut».

Igande honetako udal hauteskundeen ondoren Hernialden Udala osatuko dela ziurtzat jo daiteke. Bi zerrenda aurkezten dira udal hauteskundeetara. Alde batetik Hernialdeko Herritarren izeneko hautesle zerrenda, herri batzar bat egin ondoren osatutakoa. Bestea, PP alderdiak aurkeztu duena.

BI HITZETAN ▶
ANGEL MARTINEZ
(HARIZPE JUBILATU ELKARTEA)

«Gustura gaude Udalaren lanarekin»

I. Terradillos ▶ Ia 2.000 bazkide ditu egun Harizpe jubilatuen elkarteak. Angel Martinez (Burgos, Espainia, 1936) bertako lehendakariak, orohar, Udalarekin «gustura» daudela azaldu du.

Zer-nolako balorazioa egiten duzu Tolosako Udalaren azken lau urteotako agintaldiaz?

Baikorra. Gauzak egiten ari dira: kaleak hobetu dituzte, bidegorria jarri dute, Zerkusia bezalako eraikinak eman dizkiote... 750. urterenarekin, gainera, ekitaldi ugari antolatu dituzte. Esan bezala, balorazioa, orohar, positiboa da.

Oro har, zer eskatuko zenioke hurrengo Udalari?

Herriaren kanpoaldean gertatzen diren auzoei arreta gehiago eskaintzea. Egia da, denen gustura egitea zaila dela, baina honetan hutsune asko dituzte.

Zure esparrutik, zer nabarmendu nahiko zenioke Udalari?

Guk, elkarte bezala, gauza asko eskatu ditugu Udalean eta asko eman dizkigute. Egia da, hala ere, denentzat iritsi behar duelako eskatu baino gutxiago ematen dutela, baina, dena den, gu gustura gaudela esan behar dugu.

EKITALDIAK ▶

ANOETA

Gaur, 19:00. Anoetako EAE-ANVren aurkezpena Alkartasuna biltokian. Gizarte Zerbitzuak eta orohar helduek dituzten kezka eta beharrak entzuterako doaz.

IRURA

Gaur, 20:00. Udalak eta gizarte eragileek deituta, boto zuria eskatzeko ekitaldia, garbikuan.

TOLOSA

Gaur, 13:30. Joseba Azkarraga sailburuak, EAren hainbat hautagairekin eta Tolosaldea Garatzeneko gerentearekin bilera izango du.



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Amasa. 124m²ko etxebizitza. Egoera oso onean. Altzari eta guzti dituela.

Anoeta. Berriki eraiki eta kanpoaldera begira dagoen etxebizitza salgai. Garajearekin eta altzariz hornituta.

Anoeta. Hartziko baserrian 90m²ko etxebizitza salgai.

Berritzeko.

Betelu. Hiru logelako etxebizitza. Egongela, sukalde, bi bainugela, terraza eta altzariz hornituta. Ezinhobea.

Donostia. Intxaurren, Zardandegi eremuan,

familiabakarreko atxikia, egoera ezin hobean.

Ibarra. Bi logelako etxebizitza. Eraberritua. Plazaren inguruan.

Iruia. Etxebizitza atikoan. Hiru logelakoa. Sartzeko moduan.

Legorreta. Ostalaritzako negozioa salgai.

Lizartza. Eraberritzeko dagoen hiruro logelako etxebizitza lursailarekin.

Tolosa. San Frantzisko, 75 m²ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

Tolosa. San Esteban auzunean, bi logelako etxebizitza, igogailuarekin eta erabat berritua.

Tolosa. Zumalakarregi kalean,

lehenengo solairuan 105 m²ko etxebizitza.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 122 m²ko etxebizitza, garajea eta trastelekua.

Tolosa. Berazubini, laugarren solairuan eraberritutako etxebizitza. Igogailu proiektua onartuta.

Tolosa. Berazubini, laugarren solairuan etxebizitza, eraberritua.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean, igogailuarekin, bi logelakoa.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 35 m²ko merkataritzarako lokala, 35 m²ko sotoarekin.

Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. 70 m².



EAE-ANVk herri programak eta iganderako ekimenak aurkeztu ditu eskualdeko hainbat herritan

Ibarran sinadura bilketa egingo dute igandean «erabakitzen dena errespetatua izan dadin»

ASIER IMAZ-IMANOL GARCIA

Anoeta, Aduna, Ibarra eta Leitzan EAE-ANV alderdiak ekitaldiak antolatu zituzten herri programa eta hainbat ekimenen berri emateko.

Anoetako EAEK gaztetxean «Udala eta gazteen arteko ha-

rremana eten egin dela» esan zuten. Hori berreskuratzearen alde azaldu ziren eta «herritarren parte-hartzea bultzatuko dutela gaineratu zuten.

Adunako EAEk bere herri programa aurkeztu zuen. «Herriarren alde lan egiten jarraituko» dutela eta Adunatik proze-

sua bultzatuko dutela azaldu zuten. Leitzan EAE-ANVk udal taldearen aurkezpene burutu zuten. Bertan alderdiko alkategaiak, Xabier Zabalok eta Nafarroako legebiltzarerako zerrendatan aurkeztuko den Arantxa Santestebanek hitz egin zuten. Herri programa eta

prozesuaren alde mintzatu ziren, «EAERI bai esatea prozesuari bai esatea dela» azaldu zuten.

Ibarrako EAEk ere herrirako duten proiektua aurkeztu zuen prentsaurrekoan, horretan lagundu duten «ibartar ugari eskerrak emanez». Horretaz

gain, igandean ibartarrek erabakitzen dutena «errespetatua izan dadin», bi ekimen aurkeztu zituzten. Lehen sinadura bilketa izango da, «norberaren botoa, edozeinentzat izanda ere, denen artean, udalaren ordekaritza lortzen duten alderdi politikoei zera eskatuko diegu: ideia guztiek udalean aukera berdinekin izateko egin beharrekoak egin ditzatela». Bigarren ekimena, alderdi politikoekin biltzea izango da, «botoen bidez erabakitakoa Udalean posible egiteko, xirrikitu eta aukera legal guztiak elkarrekin jorratzeko».



Ibarran hauteskunde egunerako ekimenak aurkeztu zituzten herri programarekin batera. Leitzan EAEren udal taldea aurkeztu zuten. Xabier Zabalok alkate hautagaia irudian. HITZA




Anoetako EAE-ANVk gaztetxean, «udala eta gazteen artean harremana etena» dagoela esan zuten, Adunan berriz, «herriarren alde lan egiten jarraituko dutela» esan zuten. HITZA



GAURKO IRUDIA ▶

Tolosako EAJ «proiektu zehatzen» alde

A. Imaz ▶ Tolosako EAJ Usabal kiroldegian elkartu zen atzo. Tolosarako alkatezarako hautagaiek, beraiek «proiektu zehatzetaz» hitz egiten dutela azaldu zuten bertan. Herritarrek «gaur edo bihar eskuetan izango «duten Tolosako mapa batetan zehazten ditu EAJk proiektu horiek. Bertan 15 auzogunetako argazkiak agertzen dira, bertarako dituzten ideia edo hasiak dauden lanen berri emanez. Bedaio, Aldaba eta Urkizu ere aipatzen dira mapa horretan. Honekin batera, «aurrera begiratzen dutela» azaldu zuten EAJren hautagaiek. A. IMAZ



NATURA ▶

Naturaldiko azken saioa izango da gaur

Klima aldaketaren aurka borrokatzeko Euskadiko estrategia zein den azalduko du Xabier Cañok, 20:00etan



Xabier Caño izango da gaurko saioko hizlaria. HITZA

ESTI EZEIZA

Apirilaren 23an hasitako Tolosako Naturaldia jardunaldiak gaur emango diete amaiera. Aldaketa klimatikoa izan da hizpide saio hauetan. Gaurkoan, 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan izango den mintzaldian Xabier Caño klima aldaketaren aurka borrokatzeko Euskadiko estrategia zein den azalduko du. Caño Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publiko (IHOBE) zuzendari nagusia, eta Klima Aldaketaren Euskal Bulegoko koordinatzailea da. Aurkezle lanetan Jokin Bildarratz ariko da.

Jardunaldi hauekin, «aldaketa klimatikoa bezalako gai konplexu bat jendeari hurbiltzea» izan dute helburu.

KIROLAK ▶



Asegarceko mutilak Asuncion klinikan

E. Ezeiza ▶ Asuncion klinikako zuzendariek eta Asegarcekoek lankidetzara hitzarmena sinatu dute. Joan den urtetik azken enpresa honetako pilotariak Tolosako erietxean izaten dira trata-

tuak lesioak dituztenean. Honez gain, proba kliniko eta analitikoak ere egiten dizkiete. Asegarcekoen esanetan «oso gustura gaude orain arte jaso dugun tratuarekin». **E. EZEIZA**

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Telefono zenbakia: 943 69 19 33.

Lorategietako langileak.

Lorategietako langileak, garbiketara, lanpostu libreak. Interesatuak deitu 699 13 45 86ra.

Harreragileak. Udalekuek harritako harreragileak behar dira. Deitu 943 44 48 66ra.

CJ BT
JULIAN D TOLOSA

Inoiz jango duzun txuletarik hobereana jan nahi baduzu, Julianera etorri, probatu eta berriro ere etorriko zara



Santa Klara kalea, 6
Tel.: 943 67 14 17
20400 Tolosa

XAKEA ▶

Banaka nahiz taldeka eskualdekoak laugarren

Larunbatean xake azkarreko Tolosako txapelketa jokatu dute Berdura plazan

ERREDAKZIOA

Xake partida ugari izan dira aurreko asteburuan, bai eskolartekoetan, baita helduen artean ere. Batetik, Elorrioko Xake Topaketa ospatu zen, banakako eta taldekako txapelketa banarekin. Eskualdeko jokalariek bi txapelketetan parte hartu zuten, Igor Mendizabalek banakakoan, eta Aitor Villena, Mikel Muguruza, Eneko Maiz eta Unai Mendizabalek osatutako laukoteak taldekakoan. Mendizabalek txapelketa bikaina jokatu zuen. Lehen mahaian aritu zen beti eta laugarren amaitu zuen. Taldekakoan eskualdeko ere laugarren izan ziren. «baina akaso gehixeago espero zen beraien-gandik».

Bestetik, infantilen Kutxa txapelketako bigarren saioa jokatu zuten. Tolosa-Ibarra A taldeari ordea gauzak ez zitzaizkion

hain ondo joan, 3-1 galdu baitzuten bi txandak. Aitor Alkorta eta Beñat Salbarredik puntu bana atera arren taldea seigarren da orain bere multzoko sailkapenean eta zail dute finalerako txartela eskuratzea. Datorren astean zer egiten duten ikusi beharko da.

Helduen aldetik, hasi da dagoeneko xake azkarreko zirkuitua eta beraz, ia astero dute txapelketaren bat. Lehengo astean Ababiñon jokatu eta gero, aste honetan Beasainen izan dira. Ababiñon laugarren izan ziren eta Beasainen bederatzigarren. Ea hurrengoetan hobetzen doazen.

Bestalde, maiatzaren 26ean xake azkarreko Tolosako Txapelketa antolatu dute. Berdura plazan izango da, arratsaldeko lauetatik aurrera. Antolatzaileek eskualdeko zaletu guztiei bertan parte hartzeko gonbita luzatzen diete.

ARETO FUTBOLA ▶

Denboraldiko azkenean kale, Laskorainek

Bosgarren postua eskuratu dute horitxoek; azken partidari Egizabal omendu zuten

ERREDAKZIOA

Partida berezia izan zen joan den larunbatean Usabalgo kiroldegian Laskorainek jokatu zutena. Izan ere, Iñaki Egizabalek bere azken norgehiagoka zuzendu zuen. Hamalau denboralditan aritu da zuzentzen horitxoen taldea.

Hori dela eta, omenaldi («txiki») bat egin zioten Laskorain Ikastolakoek. Norguehiagoka hasi aurretik Joxe Martin Aizpuru eta Jone Urteagak plaka bat entregatu zioten jokaleku erdian *Mila esker Eskil!* irakur zitekeen kamiseta eta pankartaz lagunduta zeuden jokalariei aurrean.

Ondoren, 1993. urtetik gaur egunera arte, berarekin batera lanean ibili den Saldiasek, taldekide guztiak sinatutako kamiseta eta bere jokalaria eta entrenatzaile denborak oroitzen zituen foto-muntai bat oparitu

zizkion talde guztiaren izenean.

Jokalariek izan zuten aukurarik beste opari bat egiteko baina Piti Pascual talde bizkaitarrak ez zien utzi 3 puntuak beraien entrenatzaileari eskaintzen. Porrotaren arrazoi nagusia lehenengo zatian kanpotarrek etxekoan huts edo nahasteak aprobetxatzeko izan zuten eraginkortasunean egon zen. Atsedendira 1 eta 5-ekoarekin erretiratu ziren, Saldias kapitainak egin zuen bakarra.

Bigarren zatian egokiago aritu ziren eta hobeto jokatu zuten Egizabalen mutilek. Azkenik, 3 eta 6ko duin batekin amaitu zuten. Horrela eman zioten itxiera 2006-2007 denboraldiari horitxoek. Gora-behera haundiak izan arren, azkenean bosgarren postuan amaitu dute aurtengo denboraldia.

KULTURA ▶

Loatzo musika eskolan izena emateko epeak

Loatzo musika eskolan ikasle berrien kanpaina zabalik, honakoak dira egunak eta telefono zenbakiak: Zizurkilen Atxulondon, gaur (648 102799); Ibarran, Kultur Etxean gaur (648 102800); Villabonan, musika etxean, gaur (943 694549); Adunan bihar eta etzi, udaletxean (648 102801); Altzon bihar eta etzi udaletxean (648 102800).

UGARTE ▶

Betizu jatea izango da larunbatean

Amezketako Ugarte auzoan betizu jatea antolatu dute larunbaterako. 14:00etan izango da pilotalekuan eta gaur izango da izena emateko azken eguna Goikoetxea tabernan. Txartelak 27 euro balio du, eta mementuz 50 bat lagunek erosi dute. Kanpotarrek betizua dastatzeko aukera ona izango da: aprobe-txa dezatela. Egunean bertan ere eros daitezke batzuk.



Betizu jatea Ugarten. HITZA

ALEGIA ▶

Bidegorria ezagutzeko, larunbatean

Gaur, 21:00etan Intxurre futbol taldeko neskek Altzan jokatu dute partida, atzeratutakoa. Larunbatean, berriz, Alegian maiatzan zehar antolatutako ekitaldien baitan gynkana eta Alegiko bidegorriaren ezagupena izango da 11:30ean. Plazan bilduko dira, eta antolatzailea Langaurre txirindulari elkartearen da. Bizikleta besterik ez da eraman behar.

AISIA ▶

Albizturren eta Bidegoianen ipuin-kontalaria

Bihar, Idoia Sanchez tolosarra eta ipuin-kontalaria Bidegoianen eta Albizturren izango da arratsaldean. Bidegoianen, herri eskolan 17:00etan, eta Albizturren, berriz, liburutegian 18:15etik aurrera. Haurrentzako proposak diren ipuin ezberdinek kontatuko ditu Idoia Sanchezek. Ekitaldi hau Gal-tzaundi euskara taldeak antolatu du.

BEDAIO ▶ KULTURA

Harri Jaia, hondamena jaiarekin gogoratuz

Mezaren ondoren hamaiketako elizako plazan egingo dute; igandean, berriz, Jubilatuen eguna ospatuko dute



Iaz jende asko elkartu zen Harri Jaian. Txingor maluta handiak izan ziren Bedaion. N. U./HITZA



NEREA URBIZU

Uzta txarra izan zuten Bedaion urte batean, oso txarra. Harria izan zen Jasokunde Eguna pasa eta hurrengo ostegunean. Horregatik, bihar ospatuko dute Harri Jaia: urte hartan izandako miseria jaiaren bidez gogoratuko dute beste behin. Kazkabarra izugarria izango zen, halakoak izaten ohi baitira gure eskualdeetan, baina ez uzta guztia izorratzeko modukoak. Baserri batzuetako teilatuak ere hautsi zituen. Horren ondorioz, bedaiotarren erre-guak eta otoiak garai hartatik aurrera areagotu egin ziren, berriro halakorik gerta ez zedin.

Harri Jaia, beraz, ospatzen dute geroztik. Aurten, meza entzungo dute 11:00etan, eta on-

doren, hamaiketako egingo dute, baina duela urte batzuk egiten zutena ere berreskuratuko dute: izan ere, hamaiketako elizako plazan egingo dute, eta trikitilariak ere izango dira, erromeri txiki bat eginez.

Larrañaga eta Mañukorta bertsolariak bazkariaren garaian izango dira Artubi elkartean, 14:00ak aldera. Han ere, noski, trikitilariak izango dira, auzotarren bat iaz bezala dantzatzera animatzen bada, laguntzeko.

Gauerako ere afora antolatu dute Artubin. Orduan ere musika izango da gaua ere girotzeko.

Jubilatuen eguna igandean

Igandean Jubilatuen eguna ere izango da. 11:00etan meza entzun ahal izango dute, eta on-

doren, helduen arteko Toka Txapelketa izango da. Bazkaria izango da 14:00etan Artubi elkartean, eta, noski, Bedaioko jubilatuz guztiak daude gonbidatuta, antolatzaileek esan bezala.

Bedaioko I. Mendi Martxa

Bedaiotarrek hilabete behin antolatu dute ekitaldi bereziren bat. Hauek maiatzekoak izan dira, baina ekainaren 10erako, Bedaioko I. Mendi Martxa antolatu dute: honela, Bedaioko bailara ezagutu ahal izango da. Neurtua izango da eta dirudinez, 6 eta 8 ordu bitartekoa izango da. Artubi mendia izango da kotarik altuena, 1.256 metrokoa, hain zuzen ere. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA izango da laguntzaile.

ALBIZTUR ▶ EUSKARA



Bidegoiango eskolako ikasleak antzerki emanaldian. N. URBIZU

Nolega-ren bidez, euskara gehiago landuz

Lau eskola txiki elkartu ziren ahozkotatua lantzeko; 100 ikasle elkartu ziren atzokoan

N. URBIZU

Atzo Albizturko eskolan lau eskolotako haurrak bildu ziren Nolega programaren baitan (Normalizazio Legearen Garapena). Helburua, euskara eta ahozkotatua denez, modu aproposan egin zuten, antzerkiaren bidez.

Goizean zehar Albizturko, Bidegoiango, Errezilgo eta Ai-

zarnakoek antzerki bana egin zuten pilotalekuan. Ondoren bazkaltzera joan, eta arratsaldean jolasak egin zituzten hantxe bertan.

Albizturko Kultur Astea bihar hasiko da, eta tartean eskolako ikasleek atzo egingo dako saioa eskainiko dute ere, *Amona honekin kontuz* saioa, alegia. Bi hilabetetan egindako lanaren fruitua izango da.

XABI ALONSO ▶ LIVERPOOL-eko JOKALARIA

«Hemen gehiago gozaten dut jokatzeko»

Txapeldunen Ligako finala jokatu du gaur Liverpool-ekin; bigarrena irabazteko ilusiorik ez zaio falta

IGOR SUSAETA (Berria)

Arrakastaren bidea ondo eza gutzen du Xabi Alonsok (Tolosa, 1981). Baina poliki, presa handirik gabe egin du aurrera. Antiguokoren harrobian, Iraola, Aduriz anaia Mikelekin edo Fagoagarekin batera ikasi zuen futboleko baina, baina dohainak berezkoak zituen. Ez da alferrik Periko Alonso handiaren semea. Eibarren egindako denboraldi erdian, berriz, ofizioa ikasi zuen, alboan Oskar Artetxe maisua zuela, eta Realean ikasitako guztia erakutsi zuen, bere taldekideen mesederako. Joko antolatzaile aparta zela eta, Liverpool-ek ez zuen zalantzarik edukiko: 15 milioi euro ordaindu zizkion Realari. Eta hor dabil orain, zelaia erdi-erdi irakaspenak emanez, baloiarekin oso pase neurtuak emanez. Anfieldeko idoloetako bat da horregatik, taldearen ikurretako bat. «Oso gustura» dago bertan. Orain dela bi denboraldi Txapeldunen Liga irabazi zuen. Gaur berriz irabazteko aukera edukiko du.

Txapeldunen Ligako bigarren finala du Liverpool-ek azkeneko hiru denboraldietan. Txapeldunen Ligako bigarren finala duzu zure ere, hiru denboralditan. Horren atarian, zer sentitzen duzu barru-barruan?

Beno, argi dago, oso aukera polita dela. Hiru denboralditan bi final jokatzeko ez da erraza, eta aukera aprobetxatu nahi dugu. Txapeldunen Liga bigarren aldiz irabazteko ikaragarria izango litzateke guretzat, baina, beno, badakigu zaila izango dela.

Denboraldi bukaera laburragoa egiten al da gisa horretako partida bat artean denean?

Orain bi aste bukatu genuen Liga. Finala oraindik ere hori egotea motibazio handia da jokalarientzat. Askok ere hobeto entrenatu nahi dugu, partida horretan hasieratik aritzeko.

Baduzu eskarmenturik hala-

ko partidetan. Zer pentsatzen da zelaira ateratzen ari zaren unean?

Esperientzia berria da, bai. Une horretan... Zaila da esatea, baina konturatzen zara partidak sekulako ikusmina piztu duela mundu guztian, jende guztia gure zain dagoela... Hori guztia badakizu. Baina, aldi berean, badakizu futbol partidak soil bat dela.

Baina Txapeldunen Ligako ereserkiak entzutean, ez al duzu ilusio berezirik sentitzen? Beno, egia da ere bai jada askotan entzun duzula...

Bai, bai, entzuten duzu. Ereserki guzua bat da, baina finalaren hirira bi egun lehenago iristen zara, eta antolakuntza sekulakoa izaten da. Orain bi urte, Istanbulgo finalean, prentsaurrekoa ematea tokatu zitzaizkion, eta uste dut 400 bat kazetari zeudela. Finalaren inguruan gauza asko daude, eta orduan konturatzen zara zernolako garrantzia duen.

Taldekideen artean zer giro dago? Bi urtetik hona taldea ez da askorik aldatu. Ilusioa orduan bezainbestekoa al da?

Bai, bai [zalantzarik gabe dio]. Badakigu oso zaila dela Txapeldunen Ligako finalera iristea. Batzuentzat bigarrena izango da, baina finala partidak handia da oso. Oraingoz lasai gaude, kontzentratuta.

Eta Milan izango da berriro ere zuen kontrarioa. Esaten dute taldea zahartuta dagoela, onenak omanda. Halere, finala izango du. Zer gertatuko da?

Beno, taldea oso orekatua da. Atzelariak eskarmentudunak dira, lan asko egiten dutelako. Eta aurrean Kaka daukate. Berak bakar-bakarrik partida bat erabaki dezake. Denboraldi honetako Txapeldunen Ligan kristoren partidak egin ditu, eta guk ondo ezagutzen dugu; orain bi urteko finalean, esaterako, eroso ibili zen gure kon-



JON URBE/ARGAZKI PRESS

tra. Hortaz, bera gelditzen badugu, gustura ez baldin bada, asko edukiko dugu irabazita. Hori badakigu.

Milanek Txapeldunen Liga du bakarrik buruan. Beste lehiaketetan ez du zeregirik dagoeneko. Zuek berdin-berdin zaudete. Horrek hainbeste on egiten al die taldeei?

Beno... Bai guk eta baita Milanek ere Txapeldunen Ligan jarri ditugu gure indar guztiak. Milanentzat edo Liverpoolentzat oso-oso garrantzitsua da denboraldi tituluren bat irabaztea. Beraz, Txapeldunen Liga azken aukera da biontzat.

Sasoi honetan lehia gehien jokatu duen bosgarren jokalaria zara taldean. Gustura al zaudete egiten ari zarenekin?

Bai... Baina nire errendimendua taldearen parekoa izan da. Jokalari askok makal antzean hasi genuen denboraldia. Ez dakit zergatik: Munduko Kopagatik, fisikoki ondo ez geundelako... Beno, denok makal hasi ginen. Horregatik, Chelseak eta Manchester Unitedek puntu dezente kendu zizkiguten hasiera batean. Baina taldeak hobera egin duen heinean, nik ere hobera egin dut.

La hiru urte igaro dira Liverpoolera heldu zinenetik. Zertan hobetu duzu? Kanpotik, behintzat, fisikoki indartsuago zarela dirudi?

Fisikoki hobea naiz. Oreka aldetik ere bai. Eta partidak ahalik eta ondoen interpretatzen saiatzen naiz. Hori argi dago. Baina beno, Txapeldunen Liga

jokatzeko dudarekin, hiru partidak ditugu ia-ia astero, eta existentzia handiagoa da orain. Gogoan dut, Realarekin Txapeldunen Liga jokatu genuenean, oraindik ere egin gabe nengola nabaritzen nuela. Baina pixkanaka-pixkanaka ohitu egiten zara. Kontu horri hobeto aurre egiten diot orain.

Eta taldea bera orain bi denboraldikoa baino hobea da?

Baietz esango nuke. Alternatiba gehiago ditugu erasoan zein defentsan, indartsuagoak gara, eta askoz ere argiago dugu partida bakoitza nola jokatu. Hori oso garrantzitsua da.

Finalerako bidean kanporatu dituzuen taldeetako bi, Bartzelona eta Chelsea, zuek baino hobekak dira, izenak aintzat hartuta, behintzat. Rafa Benitezek kanporaketak inork baino hobeto prestatzen dituela esaten da.

Oso ondo prestatzen ditu, bai, eta oso argi du partidak bakoitza nola jokatu. Betiere, ideia bat du buruan. Oso garrantzitsua da, halaber, ideia hori jokalariei barneratzea. Aukeratu dituen jokalariek aukeratu, badaki taldeari zukua ateratzen. Eta hori da, nire ustez, arrakastaren formula nagusia.

Galez aldatuta. Eta Anfielden magia... Hainbestearainokoa al da hor sentitzen dena?

Beno, asko hitz egiten da horretaz, eta jendeak pentsatu dezake, kondaira baten modukoa dela. Baina, egia esan, nik par-

tida asko jokatu ditut jada hemen, eta gau batzuetan, partidak batzuetan, giro oso-oso berezia sortzen da, eta partidak onala txarra izan, jendeak etengabe babesten zaitu. Niretzako, nola zelaia hala zaleak oso bereziak dira.

Chelsearen kontrako denboraldi honetako finalerdia, Anfielden zuek daukazun oroitzen duzue poltzena al da?

Hori, eta orain bi denboraldi Chelsearen kontra jokatu genuen Txapeldunen Ligako finalerdietakoa. Bi partidak izan dira oso bereziak.

Orain bi urtekoan, ordea, zigortuta zeunden...

Bai. Igual horregatik bizi izan nuen gehiago partidak; harmaitan nengoaileko, alegia.

Liverpoolen jokatzeko duzuenetik, futbolera bera gehiago baloratzen al duzu?

Bai, beno... Ingalaterran asko bizi da futbolera, baina Liverpoolen bertan dagoen futbol giroa, oso-oso berezia da, oso polita. Asko disfrutatzen da.

Zer da oso-oso berezia izateak?

Oso sana da giroa. Jendea gozatzera joaten da zelaira, bere taldea animatzera. Gero, zelaia isilik baldin badago, ez da jendea aspertuta dagoelako; jokoa ez gertatzen ari ez delako baizik. Eta Alfieldi dagokionez, azpiegitura ederra da, zaharkituta egonda ere.

Zuretako zer da futbolera Ogitidea solilik?

Ez, ez (ziur dio). Urte asko darazazkit futbollean, eta futbolera nire lana da, bai, baina gustatzen ari zaidana egiten ari naiz. Ez nuke ezergatik aldatuko.

Liverpoolen, Ingalaterrako Liga jokatzeko sentimendua hori indartu al du zuregan?

Igual bai. Donostian jarraitu izan banu, betiko bizimodua egingo nuke. Baina beste herrialde batera joatea, beste esperientzi bat edukitzea, bai pertsonalki eta baita profesionalki ere futbolera gehiago bizitzeko aukera ematen dizu.

25 urterekin bi Txapeldunen Liga irabazita, zein litzateke zure hurrengo erronka?

Aurrena hau irabazi behar da. Hurrengo denboraldirako Liga irabazteko lehiaren egotea izango litzateke gure erronka.

Real Madrid eta Bartzelona zure atzetik dabilzala esan izan da. Baina, Ingalaterran futbolera jokatzeko, inon baino gusturago zaudela dirudi.

Bai. Egia esan, une honetan, futbolarekin gozatzeko leku egokia da Ingalaterra.

Zergatik aldatuko zenuke taldeak?

Buffa!! Gauza asko gertatu daitezke... Baina oraindik ez dira gauza horiek gertatu, eta ez nuke taldez aldatuko.

LEITZA ▶ HIRIGINTZA

Udalak 321 etxebizitza eraikitzeke plana onartuko du etzi osoko bilkuran

Astelehenean egindako bileran alkateak 3 talde politikoen adostasuna daukatela azaldu zuen, herritarrek batzarrean beraien kezka azaldu zituzten arren



Leitzako Landa Goikoa, bertan eraikiko dituzte etxebizitzak. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Astelehen iluntzeko batzarre-rako Leitzako Udalak egin zuen deialdiak erantzun handia izan zuen eta herritar asko hurbildu ziren 20:00etan Leitzako Udalaren Landa Goikoa eta Landa Behekoaren planaren inguruan eztabaidatzera.

Patxi Saenzek, Leitzako alkateak, ostiral honetan udal batzarrean proposatu behar den udal plana azaldu zuen. Gaur egun indarrean dagoen udal planak 111 etxebizitza egitea aurreikusuten badu (62 babes ofizialekoak eta 49 libreak), plan berri honek 321 etxebizitza egitea onartuko luke (libreak eta babes ofizialekoak). Bestalde, orain indarrean dagoen planak ez du ez plazarik, ez parkerik ez kirol eremurik aurreikusten, eta ostiralean

batzarrean proposatuko den planak hiltegi ondotik hasi eta goiko landaraino joango litzatekeen saihebidetate bat aurreikusteaz gain, azpiegitura publiko berriak egitea aurreikusten du: erreka inguruko pasealekua, autotxokeetako aparkalekua bukatzea, hiltegi ondoko zubia zabaltzea eta bi kirol-instalazio.

Leitza Eginez taldeak Leitza eta etxebizitzaren inguruan zenbait datu eman ditu. Hauen arabera, azken 10 urteetan 110 etxebizitza baino gehiago egin dira, eta tarte honetan, Nafarroako Estatistika Institutuaren datuetan oinarrituz, 181 biztanle galdu ditu herriak, gaur egun 2.935 biztanle baititu herriak. 321 etxebizitza gehiago egiteak Leitza Eginez taldearen arabera %38ko po-

plazioaren igoera suposatuko luke, hau da, 1123 biztanle gehiago, 4058 biztanle osotara.

Herritarren iritziak

Batzarrak 2 ordu eta erdi baino gehiago iraun zuen, eta Patxi Saenz alkateak plana aurkeztu ondoren, asko izan ziren beraien kezka eta gogoetak azaldu nahi izan zituzten herritarrek.

Larrain Herri Plataformak duela hilabeteak egindako eskaera azpimarratu zuen: «Bere mementuan herriko beharren ikerketa bat egitea eskatu genuen eta honen arabera planteamendua. Iruditzen zaigu urte honetan denbora egondu dela, eta ez da ikerketarik egin». Bestalde, izena eman duten 144 herritar horietatik 7 langabezia daukela

azaldu zuen, eta 59, babes ofizialeko etxebizitza hartzeko exijitzen duten diru kopurutik behera bizi dela gehitu zuen. «Planteamendu hau ez da egokitzen herritarren beharretara».

Beste herritar batek abiadura handiko saihebidetaren arriskua azpimarratu zuen eta herrian 700 kotxe gehiago izatearen inguruko gogoeta ere egin zuen. «Umeek non ikasiko dute? Hornimenduekin zer gertatzen da? Ura, elektrizitatea... Udaletxeak egiten dituzte arauak. Zuek erabaki behar duzue eta ez beraiek. Nire ustez akatsez betetako proiektu bat da. Lehenago 111 etxebizitza egin behar ziren, eta orain 321. Zergatik igoera hori?».

Herritar asko izan ziren galdera hau egin zutenak: «Zer presa dago ostiralean guzti hau onartzeko?». Hauteskundeetarako egun gutxi falta direnean, hurrengo Udalaren esku uzteko ere eskatu zuten askok.

Bertan bildutako herritarren kezka nabarmena zen. «Hemen bizi egin behar dugu. Hainbeste zalantza dituen proiektu bat nola aurkeztu daiteke eta gure etorkizuna jokoan jarri? Izan gaitezen serioak».

Nafarroan herri asko dira diru iturri bezala herriko lurretan etxebizitzak egiten dituztenak. Herritar batek Iruñea ondoan dagoen Gendulain-en kasua aipatu zuen. Donejakue bidearen ondoan dago Gendulain, eta gari artean mendeak eman dituzten bi eraikin dau-

de. Hortxe ezerezetik 7.000 etxebizitza egiteko plana diseinatu dute eta proiektua arimarik gabeko hiriaren paradigma bihurtu da, ingurunearekin inolako zerikusirik ez duen hiriaren adibide argia, alegia. Honen aurrean Aralarrek Iruñean planaren atzerapena eskatu zuela azaldu zuen, hauteskundeak pasa arte. «Zergatik Leitzako Aralarrek ez du modu berean jokatu?». Aralarrek, ordea, ez zela kasu bera azaldu zuen, beste herritar batek «honek guztiak espekulazio itxura ikaragarria» duela esan arren.

Zinogotzi batek plan honek herriarentzat izan ditzakeen onurak azpimarratu zituen. «Igerilekua ustelduta dago, fundamentuzko frontoirik ez daukagu, eta plan honetatik diru asko aterako dugu gauza horiek konpontzeko». Planteamendu honek, ordea, izan zuen erantzunik. «Nik nahiago dut herria dagoen bezala, zerbait egin behar bada egingo dugu auzolanean. Honek guztiak duela urteak kanteraren inguruan egon zen eztabaida ekartzen dit gogora». Herri izaerari buruz gogoetarik ere egin zuten: «Nongo jendeak beteko ditu etxebizitza horiek? Non egingo dute lan? Nolako herria nahi dugu?».

PROZEDURA ▶

Patxi Saenzek, Leitzako alkateak, plan honek eramango duen prozedura azaldu zuen. Honen arabera, etzi, ostiralearekin, aprobata arren, hurrengo Udalak atzera bota dezake.

URRATSAK

1. Ostiralean onartu ondoren, NAO-an argitaratuko dute.
- ▶ 2 hilabetetako epea egonen da alegazioetarako.
2. Ostiralean onartu ondoren, NAO-an argitaratuko dute.
3. Leitzako Udalak behin betiko onartu beharko du bigarren batzarrean.
4. Nafarroako Gobernuak emango dio azken onarpena.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko maiatzaren 23a, asteartea ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

16

hotzena

13

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
 (zalantza argitzeko, harpidetuen egileko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Fabrensa lantegiko langile ohien afaria izango da ekainaren 2an Tolosako Amets jatetxean. Izen-ematea, 943 675405 telefono zenbakian.

Ibarra. *Inmigrazioa Euskadin* hitzaldia emango du Agustin Unzurrunzagak (SOS Arrazakeria-Gipuzkoa) Ibarako Kultur Etxean 19:00etan, Pakistani buruzko II. Kulturarteko jardunaldietan.

Tolosa. Xabier Caño IHOBEko zuzendari nagusiak *Klima aldaketaren aurka borrokatzeko Euskadiko estrategia* hitzaldia emango du udal batzar aretoan 20:00etan. Aurkezlea: Jokin Bildarratz alkatea. Tolosa Naturaldia jardunaldien barruan.

Tolosa. Pakistani buruzko jardunaldiak amaitzeko, larunbatean afaria eta *Al filo de lo imposible* dokumentala izango da Oargi elkartearen 21:00etan. Izen-ematea, 660 410548 telefonoan 12 eurotan.

Villabona. Behar-Zana kirol elkarteak bere festa izango du ekainaren 2an. Izen-ematea zabalik dago. Danborradako entsegua maiatzaren 31n, 19:30ean.

ZINEMA

Alegia. *Manderlay* filma izango da Gaztetxean, 21:30ean. Zuzendaria: Lars Von Trier (2005). Danimarkarra da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Iruztun. Mutloia, A. San Martin. 112.
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00. Eguraldia Joxe Landarekin.
 11:15-13:00. Hauteskundeak: 11:15: Zuzurkilgo EAren alkatezarako hautagai Marianjeles Lazkano; 11:45: Zuzurkilgo EAren alkatezarako hautagai Mikel Arrastoa; 12:15: Tolosako Ezker Batua-Aralar koalizioa hautagai, Iñiaki Irzabalbeitia.
 13:00: Info 7 albisteak.
 13:30-14:00: Lehiaketa, disko eskainiak eta agenda.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Leitza, pantaila handira

LEITZA ▶ Gerra Zibilaren garaiko herrian bilakatu da Leitza, 'La buena nueva' filmaren grabaketa lanak bertan burutzen hasi direlako



La buena nueva filma grabatzen hasi dira Leitza. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Leitziatik egunotan pasatzen direnek 70 urte atzera egingo dute historian. Herriarrek ez dute euren kaleak i-ia ezagutu ere egingo, izan ere, *La Buena Nueva* filma grabatzen hasi dira dagoeneko Leitza. Filmak Gerra Zibileko apaiz baten istorioa kontatzen duenez, orokorrean Leitza eliza inguruan lanean ariko direla jakinarazi dute filmako arduradunek.

Atzo, esaterako, eliza atarian filmatu zuten, eta herenegun, berriz, apaizaren baratzean. Eszenak aktoreak hiruzpalau baziren ere, jende mordoia ibili zen lanean dena ongi atera zedin. Aktore famaturen bat gertutik ikusi nahi duenak ere — Unax Ugaldede ezaguna, besteak beste — Leitza izango du horretarako aukera, ekainaren 28ra arte. Baina ez da hau filmaren grabaketarako aukeratu duten herri bakarra, Hernanin, Azeitin, Donostian, Aldatzen eta Ezkio ere filmatuko baitute.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Aitor Ibarzabal Jauregi
 (Tolosa). Gaur 7 urte. Muxu handi bat denon partetik.



URTE ASKOAN
Eñaut (Alegia). Gaur 7 urte. Ebekoen partetik. «Pentsue eman al diek Lur eta Ikatz?»

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Jai Laia eta berriaren eskutik

Fermin Muguruzak prestatutako musika bilduma bikaina

'Musika Munduko Jolastokian'

EUSKAL HERRIA. J. Plaza. Flannery eta bere ostakok
 JAMAICA. Celia Cruz. *Merley-Booker* with Toyah. *Smile* island of song
 EUSKAL HERRIA. Jaber Muguruzak. *Jo, jo*
 LISBOA. *The Beatles* songs. *All you need is love*
 KUBA. Lito. *Maria Nereis*. *Trova* magico
 HEGAZKARIA. *Lady's first*. *Black Sabbath*. *Gift of the toroise*
 NEW ORLEANS. *Blackwell*. *Zydeco*. *Chao chao baogiao*
 MEXICO. *Los Lobos* with Lito. *Guerra*. *Papa's dream*

Maiatzaren Setik aurrera larunbatero disko bat kioskoan

+ 5,30 €

berria